

#EuroEmantzipatu

GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOA

#EuroEmantzipatu
ondorio-txostena



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

—
01

#EuroEmantzipatu JARDUNALDIAREN ONDORIOAK

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK), Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, gazteen emantzipazio-ereduak lantzen ari da. Gaur egungo Euskadiko gazteen arazo handienetako bat emantzipatzeko ezintasuna da. Lan-baldintza kaskarrek eta etxebizitzaren prezio altuek asko oztopatzen dute bizitza-proiektu autonomo bat eraikitzen hastea.

Gazteen emantzipatzeko prozesua gero eta zailagoa bihurtzen ari den fenomeno bat da. Gazteen Euskal Behatokiak kaleratutako [Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2017](#) txostenean azaltzen den moduan, Euskadiko biztanleen batez besteko emantzipazio-adina 30 urte ingurukoa da (29,9 hain zuzen). Gaindegiak, Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte garapenerako Behategiak, 2018ko apirilean [argitaraturiko artikulu batean](#) adierazi bezala, Europar Batasuneko bataz besteko emantzipazio adina 26 urtekoa da, are gehiago, Danimarka edo Suedia bezalako herrialdeetan, 19-20 urte bitartekoa. Alde nabaria dago, beraz, EAEko kasua eta Europar Batasuneko herrialdeen artean.

Bestalde, aipatutako txostenean azaldu bezala, gaur egungo egoera gazteen aburuz emantzipatzeko adin egokitik urrun dago, izan ere, 15-29 urteko gazteek emantzipatzeko egokitutako jotzen duten batez besteko adina 24,2koa da. Erantzun baten beharra duten datu larriak dira. Zentzu honetan, ekitaldi honen bidez EGKren nahia gazteei emantzipatzeko aukera berritzaileak ezagutaraztea izan zen. Horretarako, apirilaren 26an Bilboko Dock gunean #EuroEmantzipatu jardunaldia antolatu zen. Bertan, Jordi Bosch adituak (Arkitekturan doktorea eta Zientzia Politiko eta Administrazioan lizentziatua) hainbat emantzipazio eredu aztertu zituen.

Gainera, bertaratutako gazteek Jordi Boschekin hausnarketa eta ekarpenak konpartitzeko aukera izan zuten; hausnarketa horiek dokumentu honetan aurkitzen dira. Lehenik, abiapuntu moduan emantzipazio eta enpleguaren egoera jarriko dira mahai gainean. Jarraitzeko, jardunaldian landutako Europako zenbait erreferentzia azalduko dira. Baita ere aztertuko dira Euskadi aplikatu daitezkeen neurriak eta amaitzeko, jardunaldira hurbildu ziren gazteen iritzia ere jasotzen da.



ABIAPUNTUA



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua
Consejo de
la Juventud
de Euskadi

Egungo egoeraren diagnostikotik abiatu zen elkarrizketa. Boschen arabera, herrialde bateko etxebizitza-sistema tartean dauden aktore guztien etengabe eta aldibereko ekintzen emaitza da, baina, funtsean, hiru multzo handi hauen ekintzek mugatzen dute sistema:



Familiek, eskaeraren aldetik eta etxebizitzaren erabiltzaile gisa.



Eraikitzaileek, sustatzaileak eta finantza erakundeak, eskaintzaren aldetik.



Sektore publikoak, araudian eta etxebizitza-politikaren diseinuan (zuzenean edo zeharka) erantzukizuna duen aldetik.

Horrenbestez, testuinguru sozioekonomiko eta demografikoa, denboran zehar gauzatutako etxebizitza-politikak, etxebizitzaren merkatuaren ezaugarriak, arloko legedia eta hiri-plangintza dira etxebizitza-sistema baldintzatzen duten faktoreak.

Higiezinaren burbuilaren garaian eta hura lehertu ondoren Europako etxebizitza-sistemek izan duten bilakaera gazteen etxebizitza-emantzipazioarekiko negatiboa izan da. Harrez geroztik bereziki, gazteek etxebizitza eskuratzeko egin behar duten ahalegin ekonomikoa eta etxebizitzaren prezioa sekula ezagutu gabeko mugetara iritsi dira.

Alde batetik, gero eta gehiago dira emantzipatu nahi eta ezinean ibiltzen diren gazteak. Gaindegiak [plazaratutako artikuluen arabera](#), 2017. urtean EAEko 15-29 urte bitarteko gazteen %45,6 emantzipazio nahia gauzatu ezinean ibili zen. Bestalde, etxebizitzaren prezio altua emantzipatzerakoan gazteen arazo handienetarikoa bat bihurtu da. [Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2017](#) txostenak zehazten du emantzipatutako pertsonen erdiak baino gehiagok (%58,1) izan duela arazo hori.

Amaitzeko, gazteen emantzipazio prozesuari zuzenean loturik dagoen enplegu arloa aipatu beharra dago. EGK-k ezinbesteko ulertzen du emantzipatzeko prozesuan enplegu duina izateko beharrezkotasuna aldarrikatzea. Gazteen Euskal Behatokiaren lanetan azpimarratzen den moduan, gazte asko dira diru-sarrera propioak izateko zailtasuna emantzipaziorako oztopotzat identifikatzen dutenak. Horrela berresten dute Gazteen Euskal Behatokiako biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestako datuek; 2018ko lehen hiruhilekoan, 16-29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa %16,4koa da; %18,6koa emakumeen kasuan, %14,2koa gizonezkoen kasuan. Bestalde, [Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2017](#) txostenean zehazten den moduan, emantzipatutako pertsonen %24,4ak dio arazoak dituela etxebizitza-gastuak ordaintzeko. Udal zein aldundi mailan izaera honetako laguntzak martxan jartzen ari dira hiru herrialdeetan.

DATUAK
ZENBAKIJAN:

45,6%

Emantzipazio nahia gauzatu ezinean ibili ziren 15-29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

58,1%

Etxebizitzaren prezio altuen ondorioz emantzipatzerakoan arazoak izan dituzten gazteen ehunekoa.

16,4%

Langabezia tasa 16-29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

EUROPAKO ERREFERENTZIAK



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua
—
Consejo de
la Juventud
de Euskadi

Egoera honi aurre egiteko asmoarekin, gazteei emantzipatzeko aukera errealetan sakontzea izan zen jardunaldiaren helburu nagusietako bat. Horretarako, Jordi Bosch arkitekto ezagunak Europako eredu aipagarrienak mahai gaineratu zituen. Herrialde eskandinaviarretako eredu sozialdemokrata izan zen Jordi Boschek gehien aipatu zuenatariko bat.

Eredu sozialdemokrata Suedia, Finlandia, Norvegia edo Danimarka bezalako Europa iparraldeko herrialdeek erreferentziatzat hartzen dute. Ongizate-Estatuaren bitartez enplegu osoa eta berdintasun-idealak lortzeko konpromiso politiko eta sozial sendoa oinarritzen da. Erakunde publikoenganako konfiantza eta gizartearen erantzukizun kolektiboa da horrelako ereduak ahalbidetzeko bidea. Eredu honetan herritar izateak laguntza publikoa jasotzeko eskubide handiak ematen ditu, familiaren estatus ekonomikoa edonolakoa izanda ere. Hezkuntza eta osasun-sistemak, publikoak eta unibertsalak dira. Gizarte eta familia-politikak zabalak dira, unibertsalak, norbanakoari bizitzaren etapa bakoitzean behar duen babesa ematea helburu dutenak, batez ere gaixotasun-egoeretan, langabezian edo erretiroa hartzearen pertsonen zuzenduak. Eredu asko sektore publikoaren esku daude erabat, eta beste batzuetan merkatuko mekanismoak oso mugatuta daude.

Bistakoa da sektore publikoaren hedapena handiagoa dela herrialde horietan, ondorioz garrantzi handiko eragile ekonomikoa da administrazio publikoa. Arriskuen sozializazio horrek pobrezia gutxitzea dakar gizarte horietan. Ordea Jordi Bosch adituaren esanetan azken urteetan, Europa iparraldeko ongizate-ereduaren printzipioek atzerakada nabarmenak pairatu dituzte. Arazo ekonomikoek ahuldu egin dute zerbitzu publikoen izaera unibertsala. Etxebizitza-politikan, berriro definitu da Estatuaren eginkizuna.

MODELO SOZIALDEMOKRATA

KONPROMISO

Politiko + Sozial

*De conseguir empleo pleno
e ideales de igualdad*

*enplegu osoa eta
berdintasun-idealak lortzeko*



POLITIKA APLIGARRIAK

Amaitzeko, Euskadin aplikatu ahalko liratekeen neurriei buruz hitz egin zen. Emantzipazio-ereduak hainbat faktoreren arteko interakzioen emaitza direla ondorioztatu zen. Etxebizitza eta enplegu politikak dira prozesu horietan eragin eta erraztasun handi eta zuzenak sortuko dituzten sektore-politikak.

Jordi Boschen esanetan etxebizitza politikei dagokienean, erlazio estatistiko sendoa dago emantzipazio-tasa handiagoen eta baliabide jakin batzuen artean (etxebizitza ordaintzeko laguntzak, etxebizitza sozialen sustapena...).

Euskadin, alokairuaren urritasuna, higiezinaren burbuilaren eta jabetzaren hedapenaren ondorioz, arazo larria bihurtu da. Etxebizitza-politikek gai horri heldu behar diote. Etxebizitza eta enplegua lortzeko trantsizio prozesuan formula malguak gehiago sustatu behar dira, alokairu soziala bezala.

Enplegu-politika aktiboei dagokienez, azterketa konplexuagoa da. Zalantzarik gabe, enplegu-tasa altuagoa lagungarria da emantzipazio-tasa altuagoa lortzeko. Beraz, erronka enplegua duten gazte proportzioa handitzeko neurri egokienak zeintzuk diren jakitea da. EGK-k kalitatezko enplegua eta gazteon lan eskubideak bultzatzeko 2015ean landutako [Gazteon Errezetak](#) dokumentuan azaltzen den moduan, hauek dira gazteentzako enplegu plan duinak gauzatzeko landu beharreko alderdi batzuk:

- | | | |
|--|---|---|
| <p>1</p> <p>Gazteentzako kalitatezko kontratazioa sustatze aldera laguntzak sortzea eta gazteen lan emigrazioaren itzulera laguntzak sortzea.</p> | <p>2</p> <p>Enplegurako formazio egokia sustatzea.</p> | <p>3</p> <p>Gazteen lanbide-gaitasunak hobetzea eta lan-eskaintzari egokitzea.</p> |
| <p>4</p> <p>Enplegu-zerbitzu publikoen eta lan-merkatuari buruzko informazio-sistemen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea.</p> | <p>5</p> <p>Ekintzailetzaren arloan lan baldintzak egokiak izan daitezen neurriak hartzea.</p> | |

Finean, ezinbestekoa da gazteentzako enplegu eskubide duinak aldarrikatzea. Izan ere, gazteriak sufritzen duen egoera prekarioa konplexua eta larria baita. EGK-k [Gazteon Errezetak](#) txostenaren bidez enplegu-politikan aurkitzen diren egoera prekarioak salatu zituen; hala nola, gazteriar zuzendutako praktika ez laborar, beka edota formazio kontratuetan iruzurrezko lan-baldintzak identifikatzeko ikuskaritzak sustatzea eskatu zuen.

#EuroEmantzipatu-ko GAZTEEK IRITZIAK

Emantzipazio-prozesua bizi duten gazteen ahotsa mahai gainean jartzeko asmoz, EGK-k jardunaldira bertaratutako pertsonen iritzia bildu zuen. Hauetako askok emantzipazio prozesua arazotzat identifikatu eta honi erantzuna eman nahian, alokairuen inguruko neurriak aldarrikatu zituzten. Gazteen iritziz, beharrezkoak dira emantzipatze-prozesua erraztuko duten neurriak. Parte hartzaile batek azpimarratu zuen moduan “*Jordi Boschek baieztatu duen bezala ez badira premiazko neurriak hartzen hau da, ez badira erabaki politikoak hartzen alokairuen igoera gelditzeko, arazoa benetako arazo larria bihurtuko da*”.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) alokairu-eskaintza urria eta garestia da. Adierazle argia da gazteentzako zein nolako esfortzu ekonomikoa ekartzen duen honek. Gazteen Euskal Behatokiak kaleratutako [Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2016](#) txostenaren arabera, 2016an, jabetzan etxebizitza bat lortzeko 18-34 urte bitarteko EAEko gazte batek bere soldataren %54,9 horretara bideratu beharra zuen; %49,6 gizonezkoen artean eta %59,9a emakumezkoen kasuan. Halaber, egoera zailagoa da alokairuan daudenentzat. 2016an batz besteko gazteen diru iturrien %66,9a bideratu zen alokairura; % 60,2a gizonezkoen kasuan, eta %73a emakumezkoen kasuan.

Zentzu honetan 2016ko datuen arabera, aipatu beharra dago, 18-34 urte bitarteko gazte batek etxebizitza gastuetan diru-sarreraren %30 bideratu ahal izateko, hauek %83 igo beharko lukete (emakumeen kasuan %99,8 eta gizonezkoen kasuan %64,9). Eta alokairurako %122,8 (emakumeek %143,3 eta gizonezkoek %100,8). Horregatik, emantzipazio prozesuan eragin zuzena duen enpleguaren arloan ere neurriak hartzea ezinbestekoa dela uste dute gazteek. Izan ere, emantzipazio-prozesua baldintzatu eta zailtzen duen faktorea da enplegu arloan gazteek bizi duten prekarietatea. “*Gazte askok oso soldata txikiak ditugu edo lan kontratuak oso murriztak dira, honek gazteen artean eragin zuzena duela uste dut, hau aldatu ezean egoera ez da aldatuko*”.

Gazteen Euskal Behatokiak datuek adierazten duten moduan, EAEko gazteriaren %16,4 langabezian izatea (2018ko lehen hiruhilekoa), %44,2 denboraldi baterako kontratuekin izatea (2015) edota batz besteko hilabeteko soldata 996€koa izatea (2015), ez dira bizitza proiektu duina eraikitzeko baldintzak.



Ez badira erabaki politikoak hartzen alokairuen igoera gelditzeko, arazoa benetako arazo larria bihurtuko da



Gazte askok oso soldata txikiak ditugu edo lan kontratuak oso murriztak dira, honek gazteen artean eragin zuzena duela uste dut, hau aldatu ezean egoera ez da aldatuko.

Azpimarratu beharra dago gazteok aurre egin beharreko enplegu egoera prekarioan ere genero diskriminazioa nagusi dela. EGK-k 2016an publikatutako [Ibilbide Moreak](#) txostenean azaldu bezala, emakume gazteek lan munduan duten egoera are zailagoa da, gizon gazteen egoerarekin alderatuta. Lehen enpleguaren bila aritzen direnetik hasita, enplegu munduan daudenean jasan beharreko diskriminazioetara helduz.

Adibide argiak dira hurrengo datuak, emakume gazteen artean %48,9ak jardunaldi partzialean lan egiten du, gizon gazteen artean ehunekoa txikiagoa den bitartean, %22,1ekoa alegia. [Ibilbide Moreak](#) txostenean azaldu bezala, emakume eta gizon gazteen arteko batzaz besteko soldata ezberdintasuna 288€koa da (2015).

Bestalde, gazteriaren iritzia jasotzerakoan agerian geratu bezala, gero eta gazte gehiago dira turismoaren fenomenoak dakartzan ondorioengatik arduratuta azaldu direnak. Gazteek egungo turismo

ereduaren aurrean neurriak hartzeko beharra adierazten dute. Izan ere, kezkatuta azaltzen dira turismoak “batetik, prekarietatea handitu dezakeelako; eta, bestetik, etxebizitzaren espekulazio basatia zabaltu dezakeelako”. Are gehiago, badaude enplegu arloan ere ondorioak dituela azaldu dutenak “turismoaren areagotzeak alokairu kontratu luzeen prezio igoera eragin du, eta horrek ere badu eragina kontuan hartuta soldatak ez direla igotzen”.

Egoera honen aurrean erantzun alternatiboak aurkitzeko, Europako zenbait emantzipazio-eredu landu ziren. Aukera desberdinak aztertzea garrantzitsua dela ondorioztatu zuten gazteek, nazioarteko esperientzia ezberdinak eredu izateak erantzun alternatiboak aurkitzen errazten baitu. Landutako nazioarteko ereduak puntu positibo asko zituztela hausnartu zuten, tokian tokiko baldintza eta beharretara moldatu beharrekoak. Bereiziki aipatuak izan ziren, “Vienako eredu, batez ere, alokairuarekiko sortuta dagoen egitura guzti hori aztertzeak interesgarria dela iruditzen zait”. Eredu honekin bat, Jordi Bosch-ek [Krisialdia eta gazteen emantzipazioa European azterketa bat ongizate-Estatuaren ereduetatik](#) lanean aipatzen dituen Europa iparraldeko herrien politikak eta Frantzia gazteei zuzenduriko politikak ere interesgarriak iruditu zitzaizkien bertaratuei.

Amaitzeko, EAEko gaur egungo egoeraren gainean kritiko agertu ziren gazteak. Bide horretan, alokairuarentzako bideratutako diru-laguntzen beharrezkotasuna azpimarratu zuten; “ondo deritzot, errealista eta beharrezkoa iruditzen zait denbora luzerako politikak pentsatu eta planteatu bitartean”. Bestalde, askok irtenbide posible moduan, alokairu sozialerako etxebizitza gehiago sustatzeko etxebizitza parkearen antolaketaren beharra adierazi zuten. Modu argian adierazi izan zen bertaratu zirenen artean “etxebizitza soziala gehiago sustatu beharra dago”.

Emantzipatzeko ezintasuna Euskadiko gazteen artean errealitate bat dela argi geratu da #Euroemantzipatu jardunaldian. EGK-k gazteen emantzipaziorako baldintzak hobetzeko lanean jarraituko du, bide horretan Europako ereduak desberdinak aztertzen jarraituko du alternatiba berriak aurkitzeko bidean.



Batetik, prekarietatea handitu dezakeelako; eta, bestetik, etxebizitzaren espekulazio basatia zabaltu dezakeelako.



Turismoaren areagotzeak alokairu kontratu luzeen prezio igoera eragin du, eta horrek ere badu eragina kontuan hartuta soldatak ez direla igotzen.



Etxebizitza soziala gehiago sustatu beharra dago.

